

BALOREEN ZAINZA ETA ADMINISTRAZIO-KONTRATUAREN EREDUA

(e)n, (e)ko aren (e)an.

Alde batetik Banco Santander S.A. (aurrerantzean, Bankua), egoitza soziala Santanderren duena, Paseo de Pereda, 9-12, eta A-39000013 IFZ zenbakiduna; Santanderreko Merkataritza Erregistroan inskribatua, 286. orrian, 64. folioan, Sozietateen 5. liburuan, 1. inskripzioan, bere ___ sukurtsalaren bitartez, ___ kokatuta; eta ekitaldi honetan behar bezala ordezkaturik, IFZ zenbakiduna _____, eta _____ jaun/andrearen aldetik, IFZ zenbakiduna _____ ahalordedunak diren heinean, _____ (e)n eta ___(e)n _____ urteko ___ren ___(e)an _____ Notario jaun/andrearen eta _____ Notario jaun/andrearen aurrean _____ eta _____ protokolo zenbakidunak, hurrenez hurren, egiletsitako ahalorde eskrituren arabera.

Eta bestetik balore kontuaren eta kontratu honen titular honek/hauek:

Izen-deiturak: _____
IFZ/Nortasun Agiri Nazioanala _____ zenbakiduna. Nazionalitatea: ____ Bizilekua (herrialdea): _____
Helbidea: _____
Jarduera (CNAE) _____, Egoera profesionala: _____
Esku-hartze mota: _____

Izen-deiturak: _____
IFZ/Nortasun Agiri Nazionala _____ Nazionalitatea _____ Bizilekua (herrialdea): _____
Helbidea: _____
Jarduera (CNAE) _____, Egoera profetsionala: _____
Esku-hartze mota: _____

Ordezkarien edo boteredunen datuak:

Izen-abizenak _____
IFZ/Nortasun Agiri Nazionala _____
Esku-hartze mota _____

Ahalorde eskriturak: egilestearen tokia eta data ____.
Notario baimen-emailea ___, protokolo zenbakia _____

Lotutako kontuaren titularrak:

_____	IFZ/ Nortasun Agiri Nazionala _____ (<i>esku-hartze mota</i>)
Helbidea: _____	Bizilekua (herrialdea) _____
_____	IFZ/ Nortasun Agiri Nazionala _____ (<i>esku-hartze mota</i>)
Helbidea: _____	Bizilekua (herrialdea) _____

Pertsona juridikoa den

titularra: _____, IFZ
Izen soziala: _____ zenbakiduna . Nazionalitatea _____
Helbidea: _____
Jarduera (CNAE) _____
Esku-hartze mota: _____

Entitate identifikatzailearen kode identifikatzailea (LEI) ¹: _____

¹ Entitate juridikoaren identifikatzailea (LEI, ingelesezko siglengatik) kode global eta bakarra da, zeinak legearen arabera, mundu osoko finantza-transakzioen kontratatzaileak identifikatzaileen eta finantza-arriskuen kudeaketa hobetzen laguntzen du. Espainiako zuzenbidearen eta Espainiako LEIaren kudeaketaren arabera, Merkataritza-erregistroar dagokio (www.justicia.lei.registradores.org).

Merkataritza _____, _____, orria
erregistroa liburukia _____, folioa _____
_____, inskripzioa _____

Ordezkarien edo ahalordedunen datuak:

Izen-abizenak ____, IFZ/ Nortasun Agiri Nazionala

Nazionala __ esku-hartze mota _

Ahalorde eskriturak: egilestearen tokia eta data _____

_____, Notario baimen-emailea: _____

_____, protokolo zk. _____

XXXX/XXXX/XX/XXXXXXXXXX BALORE KONTUA (CCV)

Erabiltzeko modua: _____ (solidarioa edo mankomunatua)

LOTUTAKO KONTUA – (CCC) Dibisa: EUROA

XXXX/XXXX/XX/XXXXXXXXXX

Erabiltzeko modua: _____ (solidarioa edo mankomunatua)

LOTUTAKO KONTUA – (CCC) Dibisa:

XXXX/XXXX/XX/XXXXXXXXXX DIBISA

Erabiltzeko modua: _____ (solidarioa edo mankomunatua)

Komunikazioak:

Helbide elektronikoa: _____

Telefono mugikorra: _____

ESPAINIAN KORRESPONDENTZIA BIDALTZEKO HELBIDEA.

Titularrak honako hau ezartzen da

postak jasotzeko helbide:

Titularra pertsona fisikoa bada eta banku zerbitzuak Internet bidez kontratatuta baditu, Bankuaren ohiko posta Internet bidez jaso ahalko du. Hala ere edozein momentutan erabaki dezake adierazitako helbidean jaso nahi duela posta.

Bankuak eta titularrak edo titularrek (aurrerantzean, Bezeroa) hitzartu dute finantza-tresnen zaintza- eta administrazio-kontratu eredu hau bertan zehazten diren baldintza berezi eta orokorretan xedatutakoari jarraikiz erabiltzea.

Merkataritzako kontratu hau balore-merkatuari buruzko legerian aurreikusitako jokabide-arauei eta informazio-betekizunak betez burutzen da, baita baldintza partikular hauek eta baldintza orokorrak betez ere.

BALDINTZA PARTIKULARRAK

Komisioak – Baloreen zaintza- eta administrazio-eragiketak.

I. Kontuako idazkien bidez adierazitako baloreak mantentzea, zaintzea eta administratzea:

Espainiako merkatuetan negozioa daitezkeen baloreentzat: ___% . Gutxienekoa: ___euro. Errenta aldakorrarentzat efektiboa hartuko da kalkulatzeko oinarritzat, eta errenta finkoko baloreentzat, aldiz, hauen balio nominala.

Atzerriko merkatuetan negozioa daitezkeen baloreentzat: ___% . Gutxienekoa: ___ euro. Errenta aldakorrarentzat efektiboa hartuko da kalkulatzeko oinarritzat, eta errenta finkoko baloreentzat, aldiz, hauen balio nominala.

Negozia ezin daitezkeen baloreentzat: __Nominalaren % . Gutxienekoa: ___euro.

Kotizaziorik ez badago, nominala hartuko da kalkulatzeko oinarritzat.

II. Titulu fisikoak mantentzea, zaintzea eta administratzea:

Espainiako merkatuetan negozioa daitezkeen baloreentzat: __Nominalaren % . Gutxienekoa:

euro. Atzerriko merkatuetan negozioa daitezkeen baloreentzat: __Efektiboaren % .

Gutxienekoa: ___euro. Negozia ezin daitezkeen baloreentzat: ___Nominalaren % .

Gutxienekoa: __euro.

III. Baloreak beste erakunde batera intsuldatzea:

Espainiako merkatuetan negozioa daitezkeen baloreentzat: __% . Gehienez

euro. Atzerriko merkatuetan negozioa daitezkeen baloreentzat: ___% .

Gehienez __euro. Negozia ezin daitezkeen baloreentzat: __ euro, balore motaren

arabera.

Hitzartutako komisioak balore mota (ezaugarri eta eskubide berdinak dauzkaten jaulkitzaile baten balore - multzoa) bakoitzari aplikatuko zaizkio. I., II. eta III. ataletan jasotakoak urteko oinarriko ehuneko gisa adierazita daude. Baloreak urte bete baino gutxiago badaramate gordailuan, aplikatu beharreko komisioa balore horiek gordailuan egondako egun-kopuruari dagokion parte proportzionala izango da. Gutxieneko zenbatekoa baloreak gordailuan egondako egun-kopuruarekiko proportzioan aplikatuko da. Sortzapen epealdian gordailuan egondako errenta aldakorreko baloreen saldo efektiboaren eguneroko batez-bestekoa hartuko da kalkulatzeko oinarri. Errenta finkoko baloreen kasuan, hauen balio nominala hartuko da kalkulatzeko oinarri gisa. Aldizkako komisio hauek seihileko natural bakoitzaren amaieran edo gordailua deuseztatzen den momentuan likidatu eta ordainduko dira, dagokien proportzioan. Gainerako komisioak dagokion operazioa burutzen den egunean sortuko, likidatu eta ordainduko dira.

III. ataleko komisioak ehuneko gisa adierazita daude; gainera, gehieneko zenbatekoa ezarri beharra dago eta ezin da operazio bakoitzeko gutxienezko komisioa ezarri. Errenta aldakorreko baloreen kasuan, intsuldaketa burutzen den datako intsuldatutako baloreen balio efektiboa izango da kalkulatzeko oinarria. Errenta finkoko baloreen kasuan, hauen balio nominala hartuko da kalkulatzeko oinarri gisa. Atal honetan jasotako komisioak dagokion operazioa burutzen den egunean sortuko, likidatu eta ordainduko dira.

Atzerriko merkatuetan negoziatu daitezkeen baloreen tarifak aplikatuko zaizkie balore nazionalai, betiere gordailuzain atzerritar baten zaintzapean gordailutzea eskatu badu bezeroak, edo hala egitea beharrezkoa bada eragiketa burutzeko.

Komisioak – Merkatuetako bitartekaritza-eragiketak.

I. Bitartekaritza eragiketak errenta aldakorreko baloreen merkatuetan:

Espainiako merkatuetan. Jasotzea, igortzea, burutzea eta likidatzea: __Efektiboaren % . Eragiketa bakoitzeko euro, gutxienez.

Atzerriko merkatuetan. Jasotzea, igortzea, burutzea eta likidatzea: _____Efektiboaren % . Eragiketa bakoitzeko __ euro, gutxienez.

II. Eragiketak errenta finkoko baloreen merkatuetan:

Espainiako merkatuetan. Errenta finkoko baloreen erosketak edo salmenta: ___Nominalaren % . Gutxienez eragiketa bakoitzeko __ euro. Espainiako Zor Publikoko eragiketei dagozkienak izan ezik.

Atzerriko merkatuetan. Errenta finkoko baloreen erosketak edo salmenta: _____Nominalaren % . Gutxienez eragiketa __ euro.

Balore klase bakoitzeko burututako eragiketa bakoitza eragiketa bat izango da, agindu bakarrean eman badira ere. Balore klasea ezaugarri berdinak eta eskubide berdinak dauzkaten jaulkitzaile baten balore multzoa da. Tarifa hauek ez daude euroa ez diren dibisa trukeei aplikatu beharreko tarifei lotuak. Dagozkien zergak gehituko zaizkie tarifei.

Hemen adostutako komisioez gain, gordailututako baloreentzako agintzen dituen eragiketa zehatzek komisioak eta gastuak sortuko dituzte, zeinak Balore Merkatuaren eragiketa eta zerbitzuetarako gehienezko Tarifen Informazio Liburuxkan ezartzen diren: www.bancosantander.es.

BALDINTZA OROKORRAK

LEHENA.- Balore kontuaren funtzionamendua

Bankuak balore kontuan islatuko ditu zaintzan, erregistroan edo administratuak izateko bere gain utzitako eta titulu, ziurtagiri edo kontuko idazpen moduan edo beste modu batean ordezkaturako baloreak. Bezeroak balore horien gaineko eskubidea duela frogatu beharko du behar bezala.

Baloreak tituluen bitartez ordezkaturata egonez gero, Bankuak Bezeroari entregatuko dizkio. Tituluak beste erakunde batean gordailutu gabe badago, Bezeroak Bankuari entregatu beharko dio tituluen intsuldaketarako beharrezko dokumentazioa.

Baloreak kontuko idazpenen bitartez ordezkatzeko badira, Bankuak dagokion Kontabilitate-erregistroan Bezeroaren aldeko inskripzioa egiteko konpromisoa hartzen du (Xehetasun-erregistroa). Beste Erakunde bateko kontabilitate-erregistroan erregistraturako baloreak badira, Bezeroak Banku-erregistroetara ekartzeko eskaera egingo du. Kontratu eredu honen xede diren baloreak Bezeroak Bankuari emandako Baloreen agindu baten burutzapenaren ondorio badira, balore horiek balorekontuan islatuko dira; horrek ez du berekin ekarriko baloreetatik eratorritako eskubideak guztiz bereganatzea, izan ere legezko titular bakartzat Merkatuaren arauen arabera Aginduaren likidazioaren ondoren kontabilitate-erregistroko idazpenetan zilegituta ageri den pertsona joko baita. Bezeroak etorkizunean Bankuaren bitartez eskura ditzakeen baloreak, aurkako jarraibiderik eman ezean, kontratu honen bidez eraturako balore kontuan gordeko dira.

Aurreko hiru hipotesietan, kontratua burutuzat joko da baloreak benetan Bankuan zaintzan geratzen direnean, Bankuaren ardurapeko xehetasun-erregistroan erregistratu eta gero.

Bezeroak jakinarazi zaizkion eragiketa, likidazio eta saldo guztiei bere onespina eman diela ulertuko da hamabost egun naturaleko epean inolako erreklamaziorik aurkezten ez badu.

Bankuak Bezeroaren baloreei banakako erregistroa hirugarrenen esku jarri ahal izango du; hala ere Bankuak, Bezeroaren aurrean, horien zaintzaren eta administrazioaren ardura bere gain hartuko du, Legeetan ezarritakoa salbu.

BIGARRENA.- Balore-kontua eta kontu lotetsia.

Zaintza- eta administrazio-zerbitzu hau emateak balore kontu bat irekitzea eskatzen du, eta hari lotutako efektibo kontu bat, kontratu honetako baldintza partikularretan adierazitakoa hain zuzen ere. Bankuak lotutako kontura ordainduko ditu salmenten zenbatekoei edo itzulerei, interesei, efektiboari, dibidenduei, ekarpenen nominalaren eta biribilketen itzulerei edota zaindutako eta kudeatutako baloreen eratorriak diren eragiketen etekinei dagozkien zenbatekoak. Kontu horretan bertan kargatuko dira akzio, obligazio, bonu, harpidetza-eskubide eta bestelako baloreen erosketari eta harpidetza, truke eta konbertsioei dagozkien zenbatekoak.

Lotutako kontuen titularrek, Balore kontuaren titularrak ez badira, berariaz onartzen dute, kontratu hau sinatuz, balore kontu horretarako itundutako erabilpen-modua eta berariazko baimena ematen dute lotutako kontuan balore kontuaren titular bakoitzak bere kasa egin ditzakeen eragiketak islatzeko, erabilpen-modua bereizigabea denean.

Balore kontua eta hari lotutako kontu korrante baten titularra adingabe bat bada, haien legezko ordezkariak behar bezala identifikatu beharko dira eta haiek ireki beharko dituzte kontuok.

Horretarako adingabearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia aurkeztu beharko dute, eta 14 urte baino gehiago balitu, Nortasun Agiri Nazionala eta kasuari aplikagarri zaizkion xedapena betez, identifikatzeko beharrezko beste edozein dokumentazio.

Bankuak finantza-instrumentuen zorpeko erosketa aginduak errefusatu ahalko dituela jakinazten zaio Bezeroari. Bezeroak hainbat salmenta eta erosketa agindu ematen baditu jarraian, salmenten edo erosketen ondoriozko eskudiruaren kargura, aginduak egikaritu ahal izateko alde zuretik erregistratu beharko dira eskuratutako zenbatekoak edo finantza tresnak edo baloreak ondoren besterendu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Titulartasun anizkoitza.

3.1.- Kontratu hau sinatuz, titularretako bakoitzak (Bezeroak), bat baino gehiago izanez gero, bertan jasotzen diren termino eta baldintzekin ados dagoela adierazten du. Kasu horretan, titulartasun berdinarekin bakarrik kontratatu ahal izango dira produktuak.

Bezeroaren egokitasuna edo komenigarritasuna ebaluatzeko, titular bat baino gehiago egonez gero, Bankuak ustez ezaguera eta esperientzia gehien dituen titularra hartuko du kontratu honen lehen titular; betiere titularkide guztiek Bankuari esku-hartzaileen ordenaren aldaketa eskatzeko eskubideari kalterik eragin gabe, eskera hori idatziz edo beste modu fede-emaille batean egin beharko da, jasota gera dadin.

3.2.- Solidaritatea. Titularrak bat baino gehiago badaude, hauek modu solidarioan erantzungo dute, Bankuaren aurrean, kontratu honetatik eratorritako betebeharrak betetzeko.

3.3.- Balore-kontuaren erabilera. Aurkako berariazko eta idatzizko itunik ezean, baloreen kudeaketa eta erabilera, eta horietatik eratorritako eskubideen gauzapena, kontratu honen ezeztapena barne, titularretako edozeinek egin ahal izango dute, bere sinadurarekin bakarrik, horretarako Bankuari egoki diren jarraibideak emanez gero.

Bezeroak pertsona bat edo gehiago baimendu ahal izango ditu bere balore kontua erabil dezaten, Bankuari, idatziz, horretarako jarraibide egokiak emanez gero. Baimendutako pertsonentzako erabilerarako mugarik zehazten ez bada, Bezeroak bezain beste ahalmen dutela ulertuko da, zaintzan utzitako edo erregistratutako tresnen salmenta, trukea edo itzulera barne.

Adingabeen titulartasunaren pean dagoen balore kontuaren erabilera adingabearen legezko ordezkariak bakarrik egiaztatu ahal izango du, guraso-agintea kendu ez badiote edo guraso-aginte hori gauzatzeko gaitasungabetua izateko auziren batean ez badago.

Kasu bakoitzean, adingabearen legezko ordezkariak/ek emandako itzulketa edo intsuldaketa-aginduak zenbatekoa ondasun edo balore seguruetan berrinbertitzeko legez eskatutako betekizunera egokitu eta atxiki beharko dira; legezko ordezkariak badaki eta bere eginbidean errespetatzeko konpromisoa hartzen du eta Bankuak ez du horren aurrean inolako erantzukizunik izango, Bezeroaren eta legezko ordezkariaren/ordezkariren artean egoki izan daitezkeen ekintzei kalterik egin gabe.

3.4.- Ahalordetzeak. Titularraren legezko ahaldukin edo ordezkariak egonez gero, kontratuko baldintzak jarraituko dituzte eta bere ahalmen eta ordezkariaren indarrean direla ulertuko da Bankuak horien aldaketa, bertan behera uzte edo aldaketaren jakinarazpen egiaztatagarria jaso arte.

LAUGARRENA.- Baloreen zaintzaren eta administrazioaren luzapena.

Zaintza, erregistro eta administrazioaren xede diren baloreak Bankuak une oro Bezeroaren alde erregistratuta edo bere izenera zaintzan dauzkan eta Bankuak Bezeroari aldi behin igortzen dion posizio-laburpenean islatzen direnak izango dira, Bezeroak Bankuari jakinarazitako aginduengatik edo gordailuaren edo erregistroaren administrazioaren ondorioz.

BOSGARRENA.- Gordailuan utzitako edo administratutako baloreen zaintza.

5.1. Bankuak, zintotasunez, profesionaltasunez, inpartzialtasunez eta Bezeroaren interesen alde jokatzeko beti, tituluen bitartez edo bestelako edozein euskarri fisikoren bitartez ordezkaturiko baloreak zaintzeko betebeharra du, bai eta, aurretiaz hala adostu bada, kontuko idazpenen bitartez ordezkaturiko tresnen inskripzioa mantentzekoa ere.

Bankuak ez du erantzukizunik izango zaintza, erregistro edo administrazio-kontratu ereduaren xede diren baloreek halaberrez paira ditzaketen merkatuaren funtzionamenduaren edo nahitaezko arrazoiengatik zein ezbeharrengatik izandako galera edo narriaduren aurrean.

Balore-merkatuari buruzko legeria beteaz, Bezeroari jakinarazten zaio merkatuko kideen aldeko finantza-bermearen eskubidea dagoela, baita kontrapartida zentralako entitateen aldekoa ere; eta, balore edo esku-diru horien inguruko gordailu zentralen alde likidatu ondoren, efektibo hori edo baloreak aurreratu dituztenengan likidazio horri aurre egiteko, edo bezeroek betetzen ez dutenean edo konkurtsoa bitartean dagoenean. Bermeak baloreen prezioa, efektiboak eta isun edo zigorren zenbatekoa hartzen ditu.

5.2. Bankuak Bezeroari jakinarazten dio CACEIS BANK SPAIN S.A.U.-ren esku uzten duela Bezeroak, nazioarteko baloreen zaintza-zerbitzua; hortaz, kontratua sinatzen den egunetik aurrera, CACEIS BANK SPAIN, S.A.U. izango da aipatutako nazioarteko balioen zaintza-zerbitzua burutuko duena. Nazioko balioen kasuan, Bankuak eskainiko dio Bezeroari zaintza-zerbitzua eta Zaintza eta Administrazio Kontratu Eredu honetan zehaztutakoaren arabera administratutako nazioko balio horien banakako erregistroa eramango du.

Nazioarteko balio horien zaintza eskuordetzeak ez du esan nahi Bezeroaren eta Bankuaren artean sinatutako kontratu eredu honetan hitzartutako baldintzak aldatuko direnik.

Hori dela eta, eskuordetzeak ez du Bankua zainzatik eta kudeaketatik eratorritako erantzukizunetik salbuetsiko eta ez ditu Bankuak Bezeroaren aurrean dituen eskubide eta betebeharrak ere aldaraziko. Halaber, aipatutako eskuordetzeak ez dio Bezeroari gastu gehigarriarik sortuko eta ez ditu adostutako komisioak aldatuko.

Bezeroari jakinarazi zaio Bankuak CACEIS BAK SPAIN, S.A.U -ri ordaindu egingo diola eskuordetutako baloreak gordetzeko zerbitzuarengatik, eta horrek ez diola Bezeroari kostu gehigarriarik ekarriko.

Hauk dira Bankuak nazioarteko balioen zaintza-zerbitzua eskuordetu duen azpigordailuzainaren datuak:

CACEIS BANK SPAIN, S.A.U., egoitza soziala Paseo Club Deportivo, Nº 1, Edificio 4, Planta 2ª, 28223, Pozuelo de Alarcónen duena, eta A-28027274 IFZ zenbakiduna, Madrileko Merkataritza Erregistroan erregistratuta dago 7100 Orrian, 2. Folioan, 261 Liburukian, 8. Atalean, 1. inskripzioan. **CACEIS BANK SPAIN, S.A.U.** finantza-tresnen zaintza zerbitzua emateko baimendutako kreditu erakundea da eta behar bezala eratuta dago Espainiako legeen arabera, Espainiako Bankuak (www.bde.es) ikuskatzen du eta haren erregistroetan inskribatuta dago 0038 zenbakizko kodearekin. **CACEIS BANK SPAIN, S.A.U.** Kreditu Erakundeetako Gordailuak Bermatzeko Funtsera atxikita dago, berariazko erregulazioan ezarritako terminoetan.

SEIGARRENA.- Baloreen gordailuaren administrazioa.

Aurrez eta idatziz aurkako jarraibiderik jaso ezean, baloreak erregistratu edo funtsak administratzeko beharrezko ekintza eta eragike guztiak egiteko baimena izango du, baloreek dagozkien eskubideak mantendu ditzaten, aplikagarri zaizkien legezko xedapenekin bat etorritik. Eragiketa horien artean, Bankua honako hauetaz arduratuko da: a) Egoki diren interesak, kupoiak, errendimenduak edo dibidenduak, edo printzipala, salmenta edo ordainketa partzialaren edo gutzitako amortizazioaren kasuan, kobratzeaz, dagokionean, tituluak aurkeztuz edo entregatuz eta, hala badagokio, dagokion inskripzioa ezeztatzeaz edo baja emateaz; b) Nahitaezko eragiketak egiteaz, esate baterako tituluak trukeetara, kanbioetara, aldaketetara aurkezteaz, kapitalaren gehikuntza edo gutxiagotzearengatik zigilatzeaz, egoki denean, edo dibidendu pasiboak edo egoki diren kapital-deiak ordaintzeaz, aurrez eta horretarako funtsak zuzkituz, halaberrezko salmentak, askatutako kapital-gehikuntzak, etab.; c) Bezeroari borondatezko edo aukerako eragiketak jakinarazteaz, bi egun balioduneko marjinaz gutxienez, adierazten diren epealdien barruan bete ahal izan daitezen; hala ez bada, bankuak baimena izango du eskudiruzko ordainketadun balore-harpidetzak saltzeko, negoziagarriak izanez gero eta Merkaturik egonez gero, edo doako esleipenetik datozen balore berriak, soberako eskubideen segidako salmentadunak, jasotzeko ere, hori guztia Bezeroaren interes hoberako bada: Bankuak harpidetza-eskubidea ez saltzea erabakitzeke eskubidea du eskubide horien transmisioaren zenbatekoa Merkatuan ordaindu beharko lituzteen tasa eta kanonen kostuak baino txikiagoak direnean.

Bankuak ez du erantzukizunik bere gain hartuko Bezeroari egotz dakioken eta Bezeroak behar bezala eta garaiz zuzentzen ez duen edozein akats edo omisioren kasuan.

Bankuak bere gain hartzen ditu arestian aipatutako eragiketei dagozkien aipatutako betebeharrak, beti ere, Erakunde jaulkitzaileak modu ofizialean argitaratzen baditu eta, egoki denean, azpizaindariak edo ahaldunordeak behar bezala jakinarazten badizkio; bestela, Bezeroak Bankuari ohartarazi beharko dio, jakin dezan, egoki diren jarraibideak aginduz.

Berariaz adierazten da Bankuak, indarrean den araudiari jarraikiz, Bezeroa pertsona fisikoa bada eta nazionalitateko herrialdeari dagokion nortasun-agiririk ez badu, edo Bezeroa pertsona juridikoa bada eta erakunde juridikoaren kode identifikatzaileak (LEI kodea) ez badu, ez duela exekututako Bezeroak balore negoziagarriak dituen edozein motako salerosketa-eragiketarik buruz emandako aginduak, baloreen lehenetsitako harpidetza-eskubideen merkatuko salerosketa-eragiketak barne.

ZAZPIGARRENA.- Atzerriko baloreekin egindako eragiketak.

Kontratu eredu hau sinatuz, Bezeroari jakinarazten zaio eta berariazko baimena eta adostasuna agertzen du kontratu honen babespean Bankuari zaintzan utzitako baloreekin eragiketarik eginez gero, ezen kontu globalak erabiltzea ohiko praktika den, aipatutako balore horiek balore zaindariaren izenera irekitako "kontu global" batean gordailuan utziko dira, hau da, Bankuaren izenera (edo hartara izendatutako hirugarren baten izenera), "nazioarteko azpizaindari" batean (aurrerantzean, Azpizaindaria) eta bertan zainduko dira bezero anitz horiei dagozkien baloreak. Kasu horretan, bai Bankuak bai izendatutako Azpizaindariak ere, azaldutako zaintza-egitura osoan, balore horiek beti bezeroarenak direla identifikatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, Bankuarenak eta azpizaindariaren aktibo propioetatik bereizita. Gainera, Bankuak eta Azpizaindarien unean bertan bezero bakoitzak dituen baloreen posizioak eta eragiketak ezagutzeko beharrezko barne erregistroak mantenduko dituzte.

Atzerriko baloreak kontu globalak erabiliz zaintzeko edo erregistratzeko modu horrek berekin ekar dezake, aplika daitekeen atzerriko legeriak ezartzen duenari jarraikiz, balorearen jaulkitzailearen, dagokion erregistro-sistemaren eta, hala badagokio, tokiko agintari eskumendunen aurrean, baloreen titulartasuna eta barne hartutako eskubideen gauzapena kontu globalaren titularrari ematea (eta ez Bankuko bezeroari) eta horrek zenbait ondorio izan ditzake baloreen gaineko operatiba arruntan. Bezeroak bere jabetzako baloreen gainean dauzkan eskubideak gauzatu ahal izateko, Bankuak hark egoki diren atzerriko baloreen inguruan ematen dizkion aginduak jakinaraziko dizkio azpizaindaria eta eskudirua kargatu edo ordainduko du, edo eragiketa bakoitzeko baloreak bere kontuan egiaztatuko ditu. Atzerriko baloreei dagozkien eskubide politikoak gauzatzeko, Bezeroak ematen dizkion jarraibideak jasoko ditu Bankuak eta dagozkion Azpizaindariari helaraziko dizkio, egin beharrekoa egin dezan. Berariaz adierazten da, aipatu diren eskubide politikoak gauzatzean, besteak beste, atzerriko baloreen jaulkitzaileek antolatutako batzar orokorretan Bezeroaren botoari buruzko jarraibideak ematea, Bankuaren aldeko komisio bat sortuko dela, zeina Balore Merkatuko zerbitzu eta eragiketen gehieneko tarifei buruzko informazio-liburuxkan ezarritakoa, Bankuaren webgunean dago argitaratuta, www.bancosantander.es helbidean. Bankuak jasotako komisio horrek ez du besteak jasotzea galaraziko eta zerbitzua eskaintzeko benetako kostuekiko proportzionala izango da.

Modu berean, Bezeroari jakinarazten zaio atzerriko baloreen zaintzaren esparruan ohikoa dela, eta nazioarteko Azpizaindarien beren zerbitzuak emateko eskatzen duten baldintza dela dagozkien kontratuetan baloreen atxikipen-, berme, burutzapen- edo erabilpen-eskubideak aitortzea, kontratuko betebeharrak ekonomikoak urratzearen aurrean bere arriskua bermatzeko modu gisa.

Halaber, Bezeroari jakinarazten zaio, atzerriko baloreak zaintzeko kontu globalak erabiltzean, haien eskuragarritasuna eta haeingandik eratorritako eskubideak zeharo eta garaiz egitea mugatu dezakeela denbora batez, bai eta balorea narriatu edo guztiz galdu daiteke, operatiba honetatik eta baloreak eta horien zaintza hirugarren Estatu bateko ordenamendu juridikoari atxikita geratzen diren arrisku espezifikoaren ondorioz, baita Europar Batasunetik kanpo ere, hori guztia ondoren jasoko diren terminoetan. Bezeroek Bankuak irekitako kontuan gordailuan utzitako edo erregistratutako atzerriko baloreen edo balore horiekiko operatibari atxikitako funtsen gainean dituen eskubideak, jabetza eta kaudimengabeziari dagokienez, ezberdinak izan daitezke Europar Batasuneko Estatu Kide bateko legeriari atxikita egonez gero aplikatu beharrekoekin alderatuta.

Aipatu diren kontu globalen erabileratik eratorritako arriskuak kontu globalaren titularraren (Bankua edo izendatutako azpizaindaria) kaudimengabezia gertatuz gero gauzatuko lirateke; kasu horretan, kaudimengabezia prozesuari aplikagarria zaion legerian xedatutakoaren arabera, azaldutako bereizketa neurriak nahikoa ez izatea gerta liteke.

Bezeroaren baloreak identifikatzeko, kaudimenagbearen ondarearengandik bereizteko eta jabeari berehala itzultzeko edo beste zaindari edo azpizaindari bati eskualdatzeko, baldin eta: (i) aipatutako legeriak baloreen titulartasun fiduziariora aitortzen ez badu (Bankuarena edo nazioarteko azpizaindari batena delarik, bere izen propioan, baina beste norbaiten onerako, kasu honetan bezeroen onerako) eta, horren ondorioz, dagokion Agintaritzak ulertuko du, kontu globalean gordailuan utzitako baloreak ez direla kontuaren titularraren den hirugarrenenak, baizik eta kontuaren titularraren den eta kaudimenik ez duen erakundeena; (ii) porrota aitortzeko unean, erakunde kaudimengabeak (kasu honetan, Nazioarteko Azpizaindaria) ez badu bezero guztientzat zaintzan dauzkan balore guztien saldoa estaltzeko behar adina balore erregistratuta bere izenean, eta ezin badio bakoitzari dagokiona itzuli, berreskuratu ahal izango den kopurua banatzeko, kaudimengabezia arautzen duen arauak ezarritako dagoen saldoaren eta kredituen aitopenerari eta lehentasunari buruzko arauak jarraituko dira.

Horregatik, baloreei, haien zaintzari eta kaudimengabeziaren buruzko prozesuari aplikagarri zaion atzerriko legeriak ezartzen duenaren arabera, egoera konpontzen den bitartean eta bezeroaren eskubidea frogatu arte (denboran atzeratu liteke-eta), Bezeroak baloreen gainean dituan eskubideak aitortzea eta gauzatzea zaildu dezake, bai eta erreklamazioak jartzea, horretarako beharrezkoa ezango da kontu globalaren titularraren laguntza (laguntza hori ukatu daiteke, atzeratu edo gerta daiteke teknikoki ezinezko izatea)

Azkenik, Titularrari jakinarazten zaio, Europar Batasuneko legeriari jarraikiz, kreditu-erakundeetan irekitako kontuetako bezeroen balore-gordailuek berme-sistemen babesaren dutela, Estatu Kide bakoitzeko legeriek ezarritako baldintzak eta mugak betez. Europar Batasunetako herrialdeetatik kanpo, baliteke ez izatea gordailuak babesteko halako berme sistemarik.

Arrisku horien jakitun, Titularrari jakinarazten zaio, bezeroen aktiboak babesteari buruzko Espainiako legeriari jarraikiz, Bankuak ez duela bermatzen eta ez duela baloreak itzultzeko betebeharririk izango, nazioarteko Azpizaindariaren porrota edo kaudimengabezia kasuan; bere ardura izango da, Azpizaindariaren erabilerari eta kontu globalen erabilerari dagokionez, nazioarteko Azpizaindarien ebaluazioan, aukeraketan, kontratazioak, mantentzean eta kontrolean behar bezalako prestasuna jartzea (berez ala izendatutako Azpizaindari baten bitartez), horretarako kaudimen, operazio- edo legezko arrisku eta zerbitzuaren kalitateari buruzko irizpide eta betekizun oso zorrotzak jarraituz, eta bezeroei modu argi, osatu eta ulergarrian Bankuan irekitako kontuetan zaintzeko atzerriko baloreak kontratatu eta gordailuan uztearen ondorioz etor daitezkeen arriskuak bere gain hartzen dituzten. Titularrak balizko arrisku horiek edo, oro har, Azpizaindariatik irekitako kontu globalen funtzionamendua bere gain hartu nahi ez baditu, ezin izango du gorago azaldutako moduan, halabeharrez mota honetako kontuak erabiltzea eskatzen duten baloreekin jardun.

Informazio artatsua denez eta denborarekin aldatu daitekeenez (Bezeroaren inbertsio-erabakien arabera erabil daitezkeen nazioarteko Azpizaindarien kopurua handiagoa bada), bezeroen aktiboen babesari buruz indarrean dagoen araudia betetze aldera, Bankuak eskura jartzen dio nazioarteko Azpizaindari bakoitzaren nortasun, jatorriko herrialde, kreditu-kalifikazio, aktiboen segregazioari buruzko betekizun eta arrisku eta, kasu kasu, kontu globalen erabileratik eratorritako arrisku espezifikoari buruzko informazio osoa, eguneratua eta zehatza, atzerriko baloreak kontratatu eta bere kontuan gordailuan jarri baino lehen arretaz kontsultatu eta azter dezan eskatuz.

Informazio hori www.bancosantander.es webgunean ikus daiteke, MiFID atalean, "Informacion legal:MiFID " atalean, "Información de Subcustodios" eremutik sartuta.

Webgune horretan jakinarazten dira Bankuak kontu globalak mantentzeko hautatutako azpizaindariak, kontuaren titularraren herrialdea, rating-a eta identifikazioa. Halaber, berariaz aipatzen dira bertan hautatutako azpizaindariaren esku dauden Bezeroen eta azpizaindariaren jabetzakoak diren finantza tresnen arteko bereizketa eta kontu globaletan gordailutzeak ekarri ditzakeen arriskuak.

Bezeroak atzerriko baloreen inbertsioari eta aukeratutako Azpizaindariei buruzko informazio zehatza lortu ahal izango du, egoki diren baloreen jaulkipen-herrialdearen arabera.

ZORTZIGARRENA.- Informazioa.

8.1. Bankuak Bezeroari eman beharreko informazioa. Balorazioa.

Bankuak idatziz eta hitzartutako euskarrian gordailuan utzitako, erregistratutako edo administratutako baloreei buruzko informazioa helaraziko dio eta harengandik, egoki denean, jarraibide zehatzak jasoko ditu. Bezeroak zaintzan utzitako, erregistratutako edo administratutako finantza-tresnen osaera aldarazten duen eragiketaren bat egiten duenean, horrek eragindako posizioaren txosten edo berrespen-jakinarazpen bat bidaliko dio Bankuak Bezeroari. Horrez gain balore kontuaren laburpen bat ere bidaliko dio Bezeroari; bertan Bankuan dauzkan baloreen egoeraren berri emango dio, baita horien saldo eta errendimendua ere, eta horrek bere zerga-betebeharrak betetzeko erabili ahal izango du. Aurrekoa gorabehera, Bezeroak idatziz eskatzen dion bakoitzean eta legez ezarritako epearen barruan, Bezeroak kontratatutako eragiketen inguruko informazio guztia emango dio Bankuak, izan ere, burututako eragiketa guztiak erregistroan gordeko ditu Bankuak eta artxibatuta izango ditu jasotako aginduen egiaztagiriak.

Balore kontuaren laburpena da, akatsik gertatu ezean, bertan jasotzen diren baloreen erregistroaren eta zaintzaren berri emateko modua; Bezeroak jasotako azken laburpenak edo txostenak egun horretako egoera islatzen duela ulertuko da, aurreko laburpenak ordeztzen eta ezeztatzen dituelarik. Laburpen hori izenduna eta besterenezina da, beraz, eta ezin da besterendu edo endosatu, eta Bezeroak Bankuari zaintzan utzitako, edo honek administratutako baloreak leheneratzea eskatu ahal izateko balio du bere baitan, baina horrek ez du galaraziko Bezeroak bestelako bitartekoak erabiliz ere frogatu ahal izatea bere eskubidea.

Hori guztia kontabilitate erregistroaren ardura duen erakundeak jaulki beharreko legitimazio ziurtagiriari kalterik eragin gabe, kasuaren arabera Kontabilitate erregistroko idazpenetan pertsona legitimatu gisa ageri dena izango da legebidezko titularrak, eta pertsona hori eta baloreetatik eratorritako eskubideen onuradunak edo baloreen gainean eratutako zamen edo eskubide erreal mugatuaren onuradunak izango dira jaulkipena eskatzeko ahalmena izango duten bakarrak.

Beharrezkotzat jotzen denean, eskualdaketarako eta kontuko idazkinen bidez adierazitako baloreetatik eratorritako eskubideak baliatzeko edo hauen gainean eratutako eskubide erreal mugatuak edo zamak baliatzeko legitimazioa ziurtagiri bidez egiaztatu ahal da. Ziurtagiri horietan ageri beharko da baloreen titularraren nortsuna eta, kasuaren arabera, eskubide mugatuak edo zamak, erakunde jaulkitzailearen eta jaulkipenaren identifikazioa, baloreen klasea, balio nominala eta kopurua eta baita jaulkipen data ere. Halaber, ziurtagirietan adieraziko da baloreen jaulkipenaren xedea eta indarraldia.

Ziurtagiriak saldo bakoitzean barne hartutako balore guztienak edo batzuenak bakarrik izan ahal dira. Balore batzuenak soilik izatekotan, jaulkipenaren momentuan baloreak inskribatuta dauden kontuan dagokien bezala banakatuko dira eta hala mantenduko da ziurtagiria itzuli edo iraungi arte.

Ezingo da ziurtagiri bat baino gehiago jaulki balore bererako eta eskubide berak baliatzeko. Ziurtagiriak emango dituen eskubide bakarrak legitimazioarekin lotutakoak izango dira, beraz, ziurtagiriaren arabera burututako xedapen egintzak ez dira aintzat hartuko.

Jaulkitako ziurtagirian aipatutako baloreen saldoa ibilgetuta geratuko da eta ezingo da eskualdaketarik edo zamarik izapidetu, ez eta hauei dagozkien inskripzioak burutu ere, ziurtagiriak itzuli arte, betearazpen judizial edo administrazioetatik eratorritako eskualdaketak badira salbu. Itzulera obligazioa bertan behera geratuko da ziurtagiria baliorik gabe geratzen denean.

Bezeroak badaki Bankuari dagoeneko emandako informazioaren kopia jaulkitzea eskatuz gero, dagokion komisioa aplikatuko zaiola.

Bezeroak berriazko baimena ematen dio Bankuari berari zuzendutako informazioa paperean edo papera ez den euskarri iraunkorrean eman diezaion. Horretarako, Bezeroari informazioa gorde eta aldi egokian berreskuratzea ahalbidetuko eta hura aldatu gabe erreproduzitzea ahalbidetuko duten baliabide edo tresnak eraibili ditzake Bankuak informazioa bidaltzeko.

Kontratu hau sinatuz, Bezeroak baimena ematen dio Bankuari, kontratu honetako zerbitzu eta produktuak emateko araubidea jarraituz, dagokion informazioa posta elektronikoz edo mugikorrera jakinarazpen bat bidaliz bidali diezaion, Bezeroak horretarako emandako zenbakira.

Bankuak emandako informazioan sartuko da zaintzan jarritako tresnen balorazioa, merkatuko balioaren arabera. Merkatuko prezio edo balorerik lortzerik ez dagoenean balore-kontuan islatutako aktiboak balioesteko, balore kontuan zaintzen diren balore edo finantza-instrumentuei dagozkien balioa baliotsiko du eta Bezeroari jakinaraziko dio.

Balioa hutsa ere izan liteke, eta likidezia eskasia adieraziko luke horre

Euroa ez den dibisan izendatutako finantza-tresnak baldin badaude balore kontuan, jakinarazten dizugu lotetsitako kontua dibisatan kontratatuta baduzu, haren ondorioz sor daitezkeen komisioak eta gastuak eurotan kontrabaliolan oinarrituta kalkulatuko direla. Dagokion dibisarako indarrean dagoen kanbio-tasa ofizialaren arabera kalkulatuko da kontrabaliola, eroslearen edo saltzailearen prezioan oinarrituko da, dagokionaren arabera, komisioa edo gastua ordaintzeko egunean Bankuak eskuragarri dituenen arabera. Aurrekoari kalterik eragin gabe, Bankuak adierazitako kanbio-tasaren eta ordainketa egiteko eguneko tasaren aldagetaren ondoriozko aldeak ere jaso ahal izango ditu eta Titularrari jakinaraziko dio gertaera.

8.2. Bezeroak Bankuari eman beharreko informazioa. Kontratu eredu honen arabera zerbitzuak eman ahal izateko, Bezeroak emandako zerbitzurako beharrezkoa den informazio guztia emateko konpromisoa hartzen du Bankuak, aplikagarriak diren portaera arauen arabera. Bezeroak adierazten du eta baieztatzen du, kontratu honen sinadurarekin batera edota sinaduraren aurretik Bankuari helarazitako informazio guztia egiazkoa, osoa eta zehatza dela. Bezeroak emandako informazioaz fidatuko da Bankua, informazioa zalantzarik gabe zaharkituta dagoela edo okerra edo osatugabea dela dakien kasuan salbu.

BEDERATZIGARRENA.- Kostuak, lotutako gastuak eta zergak.

Bezeroak Bankuari ordaindu beharko dio inbertsio-zerbitzuak emateagatik, balore kontuaren administrazioa, zaintza eta mantentzeagatiko komisioak, zeinaren baldintzak, aldirokotasuna, kalkuluaren oinarria eta balorazio-arauak dokumentu honen baldintza berezietan biltzen diren, Bezeroak agindutako eragiketen ondoriozko edo halako kontratuek irauten duten bitartean kontratatuko diren eta behar bezala eragiketa guztiak jakinarazten dituen baloreekin lotutako eragiketen kostu eta gastuez gain.

Balore kontuari aplikagarri zaizkion komisioak aldatzen baditu Bankuak egin horren berri eman beharko zaio idatziz Bezeroari, Bankuak eman behar dion aldizkako edozein informazioarekin batera. Bezeroak aldaketa onartzen ez badu, kontratu hau bertan behera utzi ahal izango du, Bankuari jakinarazita. Jakinarazpenaren egunetik hilabete igarotakoan, Bezeroak aurkako adierazpenik egin ez badu, aldaketa onartzen duela ulertuko da eta baldintza berriak berehala aplikatuko dira. Hala ere, aldaketa hori Bezeroarentzako mesedegarria bada, berehala aplikatuko dira tarifa berriak

Bezeroaren kargura izango dira kontratu honi jarraikiz bidalitako dokumentazioak sortzen dituen posta-gastu guztiak, baita kontratu eredu honetatik eratorritako dagozkion betebeharrak sortu, bete edo amaitzeagatik sortzen diren zerga guztiak ere, legeek zehazten dutena beteaz.

Bankuak kontratu honek jasotakoaren arabera baloreak gomendatu edo saltzen dituenean, bezeroei alde aurretik jakinaraziko dizkie haren kostu eta gastuak, errepikatuak ala ez, emandako inbertsio-zerbitzuari lotuak, eta baita gomendatutako edo saldutako baloreari lotuak ere. Informazio horretan haiek ordaintzeko modua ere adieraziko da, zeina tresnari lotutako kontu korrontearen bitartez edo haren prezioan kargatuko den. Sortutako kostu eta gastuen inguruko informazioa, kontratatu den uneara, errepikatzen dena, edo hura besterentzeko, likidatzeko edo baliogabetzeko uneari dagokiona, zerbitzu edo balore motaren arabera. Eurotan ez diren eragiketen kasuan, dibisari, kanbio-tasari eta aplikatutako kostuei buruzko informazioa ere barne hartuko da.

Inbertsioaren oinarritzko datuak biltzen dituen finantza-tresnak direnean emango da aipatutako informazio hori, sortatan egindako txikizkako inbertsio-produktuen inguruan Europar Araudian zehaztutakoaren arabera, edo aseguruetan oinarritutakoa, Inbertsio Kolektiboko Erakundeena, inbertsio kolektiboko erakunde harmonizatuen inguruko Europako Zuzentaraua beteaz.

Bankuak kostuen eta gastuen xehetasunik ez badu zerbitzua eman aurretik, bezeroei balioetsia balioa emango die.

Zerbitzua eman ondoren, burututako eragiketaren kostuen eta gastuen xehetasunik emango dizkio Bankuak bezeroari, eta hark eragiketen xehetasun guztiak eskatzeko eskubidea izango du.

Baloreak gomendatu edo merkaturatzean, edo bezeroari inbertsorearentzako funtsezkoak diren datuak biltzen dituen dokumentua eman zaionean eta inbertsio-zerbitzuak behin baino gehiagotan eman zaizkionean, Bankuak gutxienez urtean behin bidaliko dizkio inbertsioei lotutako kostuen eta gastu errealen inguruko informazioa.

HAMARGARRENA.- Funtsen eta baloreen zuzkidura.

Bankuak baimena du "BEDERATZIGARRENA.- Kostuak eta lotutako gastuak eta zergak" xedapenean aipatzen diren kopuruak lotutako kontuan zorduntzeko eta lotutako kontu horretan behar adina saldo hartzekodunik egon ezean, Bezeroaren izenera Bankuak irekitako beste kontu korronteetan edo, halakorik izan ezean, baita aurrezki-kontuetan ere. Konpentsazio-ahalmen hori titularrak hirugarren pertsonekin batera dauzkan kontu eta gordailuetara ere zabalduko da, eskubideak gauzatzeko eta funtsak erabiltzeko modua bereizigabea bada, hau da, euren artean solidarioa. Kontu horietan nahikoa saldorik egongo ez balitz, Bankuak Bezeroari jakinaraziko dio egoera, eta epe bat emango dio bere betebeharrak bete ditzan. Epe hori igarota, Bankuak gordailuan hartutako, erregistratutako edo administratutako baloreak saldu ahal izango ditu, ahal den neurrian eta oro har ordena honi jarraikiz: 1) Errenta aldakor nazional edo nazioartekoa; 2) Inbertsio Kolektiboko Erakundeetako partaidetzak; 3) Errenta Finko publikoa edo pribatua; 4) Bestelako baloreak, merkatuko likideziaren irizpideari jarraikiz, handienetik txikienera. Halaber, baloreen zorpeko bat gertatuko balitz Bezeroak salmenta agindu bat eman ondoren, Bezeroaren kontura izango dira Bankuak paira litzakeen kalteak, bereziki baloreen likidazioaren eta konpentsazioaren ardura duen erakundea berreroste eragiketa burutzera iritsiko balitz. Kasu horretan, kalte eta galeren zenbateko ekonomikoa behar bezala dokumentatuta egongo da eta lotutako kontuan zordunduko da, eta Bankuak aurreko kasuan azaldu bezala jardun ahalko du.

Kode Zibileko 1730 eta 1780 artikuluetan ezarritakoaren arabera, Bankuak, behar bezalako ordainketa eta eskubidez dagozkion kalte-ordainak eta itzulketak bermatzeko azken batean kontratu eredu honen babespean gordailuan dauden, erregistratu diren edo administratzen diren baloreak bahituta izan ahal izango ditu eta Bankuak Konkurtso Legean ezarritako lehentasuna izango du.

HAMAIKAGARRENA.- Kontratu ereduaren iraupena eta amaiera.

Kontratu eredu honek, aurkako itun berezirik egon ezean, izaera mugagabea izango du eta alderdietakoren baten aldebakarreko borondatez amaituko da.

Bezeroak edozein unetan kontratua amaitutzat jo ahal izango du, BANKUARI hilabeteko aurrerapenaz eta idatziz jakinarazita. Bankuak hilabete aurrerapenaz jakinarazi beharko dio Bezeroari, kasu hauetan salbu: a) Bezeroak kontratutik eratorritako betebeharren bat ez ordaintzea, b) kapitalak zurtzeari edo merkatuko abusuari aplikagarri zaien araudia urratzea, edo c) Bezeroarekiko kreditu-arriskua, kasu horretan kontratua berehala amaitutzat jo ahal izango da.

Kontratua amaitutzat jotzen bada, Bankuak Bezeroari baloreak itzuliko dizkio, tituluak fisikoki entregatuz edo baloreak konpentsatzeko edota likidatzeko zerbitzuari atxikitako beste erakunde bateko kontabilitate-erregistroetara intsuldatuz edo transferentzia eginez, Bezeroak, bi kasuetan ere, balore kontuaren azken laburpena edo, hala badagokio, legitimazio-ziurtagiria aurrez itzulita izan beharko du, baita Bankuak jaulkitako jatorrizko gordailu-frogagiri edo ziurtagiriak ere, Bezeroak jaso-agiri gisa sinatuta; Bankuak, beharrezkoa izanez gero, baloreei epai- edo notario-kontsignazioa egingo du, Bezeroak horiek jasotzeari uko egiten badio. Kontratua desegiteko momentuan likidatzeko zain dauden eragiketei dagozkien komisioak ordaindu beharko dizkio Bezeroak Bankuari, eta baita desegitea eraginkor bihurtzen den datara arte sortutako aldizkako komisioen zati proportzionala ere.

Kontratu hau ezerezteak ez du ekidingo Bankuak, ezerezte dataren aurretik, hirugarrenekin hartutako obligazioak betetzea edo eragiketak burutzea.

Kontratua mugaeguneratu bada, edo amaitutzat jo bada, behar bezala edo aurretiaz, Bankuak hamabost (15) eguneko gehieneko epea izango du dagoeneko emandako aginduak betetzeko eta burutzeko, baloreen izaerarengatik edo merkatuko bestelako baldintzengatik epe handiagoa beharrezkoa bada salbu, eta balore kontua itxi eta haren arrazoi emango du.

Bankuak kontratu honi aplikagarriak zaizkion baldintzak aldatu ahalko ditu Bezeroari hilabete bateko aurrerapenarekin jakinarazita Bezeroak baldintzen aldaketa onartuko ez balu, kontratua amaitu ahalko du

epe horren barruan Bankuari jakinaraztia. Epe hori igarotzean, Bezeroak inolako jakinarazpenik egin ez badu, aldaketak onartu dituela ulertuko da.

HAMABIGARRENA.- Baloreen leheneratzea edo kontabilitate-transferentzia.

Baloreak beste erakunde batera intsuldatzea eskatzen badu Bezeroak, beharrezkoa izango da Bankuakhorretarako daukan eredia betetzea; eredu hori Bankuari aurkeztu beharko zaio, balore kontuaren azken laburpenarekin batera, zeina Bezeroak atzealdean sinatuta egon beharko den, jaso-agiri modura, eta beharrezkoak diren gainerako dokumentuak ere aurkeztu beharko zaizkio Bankuari.

Egoki bada, Bankuak Bezeroari entregatutako tituluak leheneratuko dizkio eta posible ez bada, baloreen iraungigarritasuna dela-eta, gordailuan hartutako, erregistratutako edo administratutakoaren kopuru bera leheneratuko dio, zaindutako edo administratutako baloreen mota berekoa, ezaugarri berdinak dituztenak eta eskubide berdinak ematen dizkietenak.

Ezin izango zaizkio fidantza edo bermeei atxikitako baloreak leheneratu, ezta bahitura edo atxikipen judizialetera atxikita daudenak ere.

Bankuak ezeztapenaren edo intsuldaketaren unean indarrean dauden Komisioen Tarifetan jasotzen diren ezeztapen- edo intsuldaketa-komisioa jasoko du eta baimena izango du kopuru horiek dokumentu honetako "BEDERATZIGARRENA.- Kostuak, lotutako gastuak eta zergak" xedapenean aurreikusitako moduan zorduntzeko.

Adostutako komisioak kobratzeko dagokion epea igaro ostean eta tresnen zaintza edo erregistroa ezerezteko edo tresnak intsuldatzeko ezarritako denbora agortu ostean, likidatzeko dauden komisioak sortuko dira, adierazitako epeari dagokion zati proportzionalean.

HAMAHIRUGARRENA.- Erantzukizuna.

Bankuak Bezeroari eragin diezazkiokeen kalte ekonomikoen erantzule izango da baldin eta kalte horiek behar bezalako prestasunik gabe egindako ekintzetatik eratorzen badira, edo kontratu honetako edo aplikagarri den araudiko xedapenak urratzen baditu; ez du inolako ardurarik izango merkatuaren arriskuez, halabeharrez edo zorigaitzez gertatzen diren kalteen aurrean, edo Bezeroak Bankuari emandako aginduetan edo jarraibideetan atzerapenak edo zehaztasun-ezak eragiten badira.

HAMALAU GARRENA.- Pizgarriak.

Pizgarriak dira Bankuak baloreen inguruko inbertsio-zerbitzuak ematen dieten hirugarren erakundeei ematen edo haietatik jasotzen dituzten ordainsariak, komisioak eta diruzkoak ez diren onurak.

Ordaindutako edo jasotako pizgarriek ez dute eragozten Banco Santander S.A.-k bezeroentzako interesik onenak bilatzea.

Bankuak pizgarriak jasotzen dituenean, zehaztuta dauden mekanismoak eta neurriak hartuko ditu bezeroei eskainitako zerbitzu eta produktuak egokiak izan, indarrean dagoen legeriaren arabera. Bankuak bere bezeroen eskura jartzen ditu inbertsio-erabakiak hartzea errazteko tresnak eta haien segimendua behar bezala egiteko informazioa ematen die.

Pizgarrien buruzko informazio eguneratua bezeroen eskura dago www.bancosantander.es webgunean, "Información legal: MIFID" eremuan. Horrez gain, Bankuak bere bezeroei jakinaraziko die, kontratatutako zerbitzu edo produktu motaren arabera, horiekin lotutako pizgarria egon daitekeela. Bankuak inbertsio-zerbitzu baten prestazioarenagatik edo egindako eragiketa zehatz batengatik jaso dituen pizgarrien informazio zehatua emango die bezeroei.

HAMABOSGARRENA.- Komunikazioak eta jakinarazpenak.

Posta edo beste edozein jakinarazpen edo komunikazio bidaltzeko helbide izendatu dute dokumentu honetako goiburuan adierazitakoa; kontratu honekin lotutako komunikazio guztiak Bankuaren helbide sozialera bidali beharko ditu Bezeroak. Bezeroak Espainian helbide bat esleitu behar du.

Espanian posta jasotzeko helbiderik zehazten ez badu, jakinarazpenak bide elektronikoz bakarrik egin ahal izango dira, Bankuak ezarritako baliabideen bitartez, zeinak bildu eta berreskuratu eta hura aldatu gabe erreproduzitzea ahalbidetzen duten.

Adierazitako helbidean aldaketarik gertatuz gero, beste aldeari idatziz jakinarazi beharko zaio, eta honek ez du inolako erantzukizunik izango jakinarazpen hori egin arte. Helbidea atzerrira aldatuz gero, kontratu honetan adierazita helburuak betetzen jarraitzeko, Espainian helbide bat izendatu beharko du. Halakorik izendatu ezean, helburu guztietarako helbidetzat joko da kontratuan adierazitakoa edo, hala badagokio, jakinarazitako azkena.

Alderdien arteko komunikazioak eta jakinarazpenak, baita Bezeroak Bankuari igortzen dizkion erreklamazioak ere, Zuzenbidez onartutako edozein bitarteko erabiliz eta [***] egingo dira, alderdiek besterik hitzartu ezean.

HAMASEIGARRENA.- Bezeroarentzako informazio garrantzitsua.

16.1. Bankuari buruz. Banco Santander, S.A. Espainiako Bankuan 0049 zenbakiarekin erregistratutako erakundea da eta Espainiako Bankuak gainbegiratzen du. Kontratu honen xede den jarduera Baloreen Merkatuaren Batzorde Nazionalaren ikuskapenari atxikita dago, calle Edison 4, 28006 Madril (Espainia).

16.2. Auziz kanpoko erreklamazioen prozedura. Alderdiek kontratu honekin loturiko edozein auziren inguruan desadostasunik izanez gero, Bezeroak Bezeroaren Erreklamazio eta Arreta Zerbitzuaren aurrean erreklamazioa egin ahal izango du helbide posta-kutxa honetara posta bidaliz Apartado de correos 35250, 28080 Madril edo posta elektronikoko bidez Santander_reclamaciones@gruposantander.es helbidean, edo Bezeroaren Defendatzailearen Bulegoan, Apartado de correos 14019, 28080 Madril helbidean.

Ebazpenarekin ados egon ezean, edo aplikagarri den araudiak ezarritako epea igarotakoan ebazpenik jaso ez bada, Bezeroak Baloreen Merkatuko Batzorde Nazionalera jo ahal izango du; ezinbestekoa izango da erreklamazioa aurrez Bezeroaren Defendatzailearen edo Bezeroaren Arreta Zerbitzuaren aurrean aurkeztu izana.

16.3. Gordailuen Berme Funtza. Banco Santander, S.A. Kreditu Erakundearen Gordailu Bermeen Funtzari atxikita dago (C/ Jose Ortega y Gasset, 22 - 28006 Madril.) Bezeroak sistema honi buruzko informazio gehigarria aurkituko du funtsaren webgunean: www.fgd.es.

HAMAZAZPIGARRENA.- Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa.

1. Kontratu honetako titularrak, pertsona fisikoak badira, eta bertan parte hartzen duen edozein hirugarrenek, abal-emaileak, berme-emaileak, ordezkariak eta/edo kontratuaren titularraren harremanetarako pertsonak baimenduak barne baina horietara mugatu gabe, (aurrerantzean, "**Interesdunak**" eta, oro har, "**Interesdunek**"), Banco Santander S.A. enpresari (aurrerantzean, "**Bankua**") ematen dizkieten izaera pertsonaleko datuak (aurrerantzean, "**Datuak**") Bankuak tratamenduaren arduradun gisa tratuko ditu, batez ere, xede hauetarako:

- (i) Bankuarekin kontratuak kontratatzeke, mantentzeko eta horien jarraipena egiteko harremana mantentzeko.
- (ii) Kontratuaren titularrari zuzenduriko ekintza komertzialak garatzea, oro har, eta zehazki interesgarri aurki ditzakezun bankuak merkaturatutako finantza- eta aseguru-produktu eta -zerbitzuak eskaintzea edota gomendatzea, iraganean kontratatutakoak aintzat hartuta. Produktuak gomendatzeko, profilarren analisi bat hartu ahal izango da oinarri. Kasu batzuetan, datuen tratamendu automatizatuan oinarritutako bitartekoak soilik erabiliz egingo da hori.
- (iii) Iruzurrezko jarduerak ikertzea edota ezagutzea, Interesdunen Datuak hirugarrenei jakinaraztea ere barne, Santander Taldeko enpresak izan edo ez.

- (iv) Interesdunen ahotza grabatzea, zerbitzuaren kalitateari eusteko, horiek bankuari telefonoz zuzentzen zaizkionean, eta grabazioak epaiketean eta bertatik kanpo frogatzea, beharrezkoa bada.
 - (v) Anonimo egiteko prozesuak egitea. Prozesu hori gauzatu eta gero, bankuak ez du interesdunak identifikatzeko modurik izango. Prozedura horien helburua anonimo egindako informazioa helburu estatistikoetarako erabiltzea da, baita jokabide-ereduak osatzeko ere.
 - (vi) Interesdunen datuak (identifikatzeak eta harremanetan jartzeko funtsezkoak) Santander Taldeko beste enpresa batzuei eta partaidetzako hirugarren enpresei edota Santander Taldeko enpresa laguntzaileei lagatzea, interesdun horiek bankuak merkaturatzen dituen erakunde horietako produktu edota zerbitzuren bat kontratatuz gero.
 - (vii) Interesdunen datuak kreditu-informazioko baterako sistemei jakinaraztea, ez ordaintzeen kasuetan.
2. Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko, eta horien tratamendua mugatzeko eta horiek eramateko eskubideak baliatu ahal izango dituzte bankuaren aurrean. Gainera, erabaki indibidual automatizatuen xede ez izateko eskubidea baliatu ahal izango dute; hots, erabakiak hartzeko, pertsona baten laguntza eskatu ahal izango dute. Horretarako, mezu elektronikoa bat bidali beharko dute privacidad@gruposantander.es helbidera edo posta arrunt bat helbide honetara: Juan Ignacio Luca de Tena 11 - 13, 28027 Madril. Interesdunak NANaren edo dokumentu identifikatzailearen kopia erantsi beharko du.
3. Datuen babesari buruzko informazioa irakurtzeko, jo Santanderrek webuneko Lege Oharrera: www.bancosantander.es, kontratu hau dela eta, titularrak inoren datuak eman badizikio Bankuari, eta pertsona hori ez bada kontratuaren sinatzailea, informazio hori pertsonari horri ematera behartuta dago titularra.

HEMEZORTZIGARRENA.- Legeri eta jurisdikzio aplikagarria.

Dokumentu hau eta titularrak hemen aurreikusitako produktuak eta zerbitzuak kontratatutako sinatuko dituenak, Espainiar legeriaren arabera gauzatuko dira. Haien interpretazioari, aplikazioari edo burutzapenari buruz sor daitezkeen auziak Espainiako legeria prozesalarekin bat etorritik eskumena duten epaitegi eta auzitegien jurisdikzioari atxikiko zaizkie.

Merkataritza-izaera duen kontratu hau kontratu eredu bat da, Balore Merkatuei buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 23ko 4/2015 Errege Dekretu Legegileari, tarifei eta kontratu ereduak dagokienez inbertsio-zerbitzuetako enpresen eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten gainerako erakundeen erregimen juridikoari buruzko otsailaren 15eko 217/2008 Errege Dekretuaren 71. eta 76. artikulua garatzen dituen EHA/1665/2010 Aginduari, ekainaren 11koa, eta tarifei buruzko informazio-liburuxkari eta kontratu ereduaren edukari buruzko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren abenduaren 12ko 7/2011 Zirkularrari jarraikiz.

Kasu horretan, kontratuak Bezeroarekin aurretik goiburuan adierazitako balore kontua irekitzeko, aurreko beste kontratu guztiak baliogabetzen ditu, Bankuaren eragiketen edo eragiketa logistikoen erruz balore kontuaren zenbakia aldatuko balitz ere.

Bezeroak alderdiek aurrezarrirako eta onetsitako baldintza orokorrak barne hartzen dituen kontratu eredu honetako baldintzak osorik ezagutzen ditu, eta aitortzen du egintza honetan kontratu honen ale bat jaso duela eta haren edukia ezagutzen duela, orrialde guztietan sinatua, baita Baloreen Merkatuko eragiketa eta zerbitzuetako gehieneko Tarifei buruzko Informazio Liburuxka ere, zeina www.bancosantander.es webgunean eta Bankuaren bulegoko oholetan eskuragarri dagoen.

Eta adostasuna erakusteko, alderdiek kontratu honen bi ale izenpetu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta datan.

LOTUTAKO KONTUAREN TITULARRAK/EK (*)